



HERRI ADMINISTRAZIOKO ETA JUSTIZIAKO SAILBURUAREN AGINDUA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNAREN ETA GOBERNU ONAREN LEGE PROIEKTUA PRESTATZEKO PROZEDURARI EKITEKOA.

I. Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia.

Sintetikoki adierazita, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren gaineko lege baten beharra Administrazio Publikoa honako ezaugarri hauek dituen gobernu-estilo baterantza bilakatu arazi beharrean datza: hurbilagoa, parte-hartzaileagoa, eraginkorragoa eta efizienteagoa, gobernantza onaren paradigma berrietan oinarrituta.

Euskal ordenamendu juridiko autonomikoan ez dago Konstituzioko 105 b) artikuluan jasotako informazio-eskubidearen lege-garapenik, ez eta, 30/1992 Legearen 37. artikulua araber, herritarrek administrazio-artxiboetan dauden erregistro eta dokumentuetara jotzeko daukaten eskubidearen lege-garapenik ere. Halaber, Euskadin ez da garatu bi arlo zehatzetan den informazio publiko sektoriala eskuratzeko oinarrizko legeria; hots, bi arlootan: ingurumenaren esparruan informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legea, eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzeko azaroaren 16ko 37/2007 Legea. Eta, finean, berezko posizionamendua falta da, bai eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak lantzen dituen gai zabalak garatzea ere.

II. Aplikazio-eremua.

Legea Autonomia Erkidego honetako sektore publikoari buruzkoa izango da nagusiki, baina kontuan hartuko du sektore publiko horrek lotura nabarmena izan behar duela eta duela euskal herri-administrazioen multzoarekin eta horri lotutako ingurune instituzional eta instrumentalekin, eta tratamendu egokia emango dio gaiari.

Beraz, euskal sektore publikoaren funtzionamenduan, bere multzoan, landutako arloak gidatu behar dituzten printzipio orokorrak ere finkatuko ditu, Euskal Sektore Publikoaren Antolakuntzako eta Funtzionamenduko Legearen aurreproiektuan jadanik aurreratutakoak arlo horretan aipatuta eta zabaldua.

Kontuan hartuko ditu, hortaz, foru-, toki eta autonomia-mailako sektore publikoak, behar bezala aztertu ahal izateko, parlamentu-mailan martxan dauden ekimenen eta gure arkitektura instituzionalaren koherentzia politikoa lantzen duten beste eremu batzuen aldiberekotasunaren haraindian. Honekin

interpretatzen da, egungo gehiengo politikoak lege horretarako nahi duena zerbitzu publikoa helburu duen euskal sektore publikoaren multzoaren gainean hausnartu eta diseinatu daitekeela da, inguruneari lege horrekin agortzen ez diren eta, aldiz, horri esker bultzatu ahal izango diren tresnak emanda.

Nabarmentzekoa da, adierazpenen haraindian, legearen helburua ezin dela izan antolaketa instituzionalaren araudia aldatzea, LHL den harremanen araua barne; batez ere, alderdi eztabaidagarrien iturria Autonomia Estatutuari eta Konstituzioari dagokien dimentsioa izanik.

Eta, hori guztia, Euskal Sektore Publikoaren Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen aurreproiektutik ondorioztatzen direnez bestelako helburuetarako, euskal sektore publikoa honako hauek ere eratzen dutela ahaztu gabe: Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, Tokiko Korporazioak eta Euskal Herriko Unibertsitatea, bai eta instituzio-maila bakoitzeko Gobernuak eta parte hartzeko, kontsultarako, independenteak diren zein aholku emateko organoak ere. Eta Legea testuak berak zehazten dituen erakunde pribatuetara eta partikularretara ere aplikatzen dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoarekiko bere harremanean.

III. Kontuan hartzekoak izan daitezkeen beste araudi batzuk.

Hainbat aukera daude proposatutako erreformaren aspektu ezberdinak lantzeko, euskal sektore publikoaren gardentasunari eta gobernu egokiari dagokienez.

a) «Ez ekintzaren» aukera barne, estatuko oinarritzko legerian sartutako egungo araudia aplikatzeko aukera aurkituko genuke. Horren ondorioa gogoz kontra jartzea litzateke, zeregin legegilea teknologiko eta gizarteko behar eta egoera berrietara egokitzeko orduan, gure Administrazioaren eta sektore publikoaren berezkoak diren arazoak guztiz ere landu gabe.

b) Lege berriak onartzea edo jadanik existitzen direnak unean-unean erreformatzea, hainbat tresna arauemaile autonomoen bidez (sektore publikoko legea; gardentasun legea; parte-hartze legea; ebaluazio-legea; Administrazioaren antolakuntza-legea...).

c) Kontuan hartutako arloei buruzko berez lotutako erregulazio-beharrak ardatz nagusi iraunkor batzuk ezarriko dituen lege espezifiko bakar batean sartzea. Gardentasunari gobernu onaren gai generikoagoari buruzko printzipio eta arau orokor intentsuenak ezartzerakoan, koherentzia ekarriko duen erreferentziazko testua ezartzea ahalbidetzen du horrek.

Azken aukera hori askoz eduki gehiagorekin proiektatu zen, Jaurlaritzak Euskal Administrazio Publikoaren lege-proiektua deitutakoa Eusko Legebiltzarraren aurrean formulatzerakoan. Nolanahi ere, Jaurlaritzak ekimen hori kentzea eragin zuten gertaera politikoak eta euskal gizartearen eskura dauden beharren eta aukeren inguruan aldiberekotasun handiena zirikatzen nahiak aukera honen hautaketa eragin dute.

Proiektu honetan, erdi-mailako irtenbidea hartuko da, Legebiltzarrean euren hausnarketa egokitzen adierazi zuten aukera politikoaren sentitzearen arabera; izan ere, lege-sorta zabalaren erregulazioak disfuntzio posibleak eta euren arteko kontraesanak faboratzen ditu, eta bere argitasun- eta koherentzia-falta inplikatu ditu. Nolanahi ere, lege esanguratsu gutxi batzuk lantzeak sektore publikoaren antolakuntzari eta funtzionamenduari dagozkien aspektuak lege-proiektu batean lantzeko gehiengoaren aukera politikoa beteko du, bai eta, hauxe den bigarren lege-proiektu batean, gardentasunaren eta gobernu onaren gai zehatzei dagozkien aspektuei buruzko erregulazioa landu ere.

Helburu zehatza duen lege integrala herritarren pertzepzio onuragarria hobetuko duen eta gai bakoitzaren esanahiari balioa handituko dion erreferentzia juridikoa izatea espero dugu, barnean eta kanpoan, araudi-mailan proposatutako paradigma berrietan oinarritutako administrazio-kultura sortzen lagunduta.

Hori guztia, etorkizunean Administrazioaren antolakuntzaren zein funtzionamenduaren gainean eragingo duten beste aspektu zehatz batzuei buruzko lege zehatzak berriazko dimentsio ezberdinarekin onartu ahal izatea kaltetu gabe.

Adierazitakoaren ildotik, eta aintzat hartuta Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikulua eta Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek diotena,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.-

Euskal Sektore Publikoko Gardentasuneko eta Gobernu Oneko Lege Aurreproiektua egiteko prozedura has dadin agintzea, agindu honetan finkatutako helburuak eta irizpideak betez. Hauexek hain zuzen ere:

Xedea eta helburua

Lege-proiektu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoaren funtzionamenduaren funtsezko ardatzak arautzea da (xedatutakoaren haraindian, ikuspegi instrumentalagotik, Sektore Publikoaren Antolakuntzako eta Funtzionamenduko Legearen aurreproiektuan), zeharkako irizpideak direnez; horrela, gure Gobernantza-ereduaren oinarriak jarrita. Hori politika publikoen ebaluazioak, gardentasunak eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeak eratzen duten triangelu kontzeptuarekin oinarritzen da, eta bere helburua gizarte-, ekonomia- eta erakunde-garapen iraunkorra lortzea da, gobernuaren ekintzaren, gizarte zibilaren eta gizarte- zein ekonomia-jardueraren orekan oinarrituta.

Horrekin, eztabaida erabakitzailea sustatu nahi da, gauza publiko deiturikoari buruz herritarrek duten pertzepzioaren hobekuntzaren gainean, haren balioa handitzeko eta, finean, administrazio-kultura berria sortzen laguntzeko, garai hauek eskatzen dituzten paradigma berriak oinarri hartuta; besteak beste, gobernantza ona deitu denaren hainbat alderdi, beraz.

Proposatutako erregulazioaren edukia

Arautu beharreko eremua (proposatutako araudiaren edukia, alegia), hauxe izango da:

- Xedapen orokorrak (xedea, helburuak, aplikazio-eremua eta printzipioak).
- Politika publikoen plangintza eta ebaluazioa, euren irudikapena barne hartzen duena, Gobernu Ekintzari, pilotutako emaitzei eta inpaktuei zein bere dibulgazio publiko esanguratsuekin batera dinamika berria eta iraunkorra sortzeagatik erabakitako sustapenari dagokienez.
- Gardentasuna, jarduera publikoaren erabateko aldaketa ekartzen duena, publizitate aktiboari eta informazio publikoa eskuratzeko bermeari dagokienez, gardentasunaren oinarri gisa; eta balio publikoaren sormenean Herritarrek Parte Hartzea; eta azken finean, herritarrentzako irekiagoa eta eskuragarriagoa den administrazio arduratsua eta eraginkorra egituratzen laguntzen duten aspektu guztiak, gobernu demokratikoaren, gizarte-egonkortasunaren eta garapen ekonomikoaren funtsezko baldintza gisa.

Bideragarritasun juridikoaren estimazioa

Politika publikoen ebaluazioaren, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eta publizitate aktiboaren bidezko herritarren partaidetza-sistema berriaren ezarpenari dagokionez, Lege-proiektu honek

eremu administratibotik garatzen du Konstituzioa, Administrazioak interes orokorrak objektibotasunarekin zerbitzatzeari buruzko bere 103.1 artikuluan, eta eraginkortasunaren, hierarkiaren, deszentralizazioaren, deskontzentrazioaren eta koordinazioaren printzipioen arabera jarduten du, Legearen eta Zuzenbidearen menpe, aginte publikoei herritarrek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzea erraztea agintzen dien bere 9.2 artikuluan, eta informazioa modu askean jasotzeko ezinbesteko eskubideari buruzko 20.1.d) bere artikuluan; bai eta aginte publikoei herritar guztiek Euskadiko bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte hartzea erraztearen derrigortasuna ezartzen duen Estatutuaren 9.2 e) artikulua ere.

Era berean, oso kontuan izan behar dira Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak aurreikusitako arauak. Izan ere, edozer ekintza politikoren funtsezko ardatzen oinarriaren atzean, indarrean sartzen den heinean, hainbat betebeharrak ezarriko dizkie erakunde eta organo ugari, oinarrizko legeria gisa.

Hein handi batean, erreferenteak dira 30/1992 Legea, oinarrizkoa, eta Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntzako eta Funtzionamenduko apirilaren 14ko 6/1997 Legea. Horiek printzipioak aldarrikatu eta neurriak ezarri dituzte gardentasunera, plangintzara, politiken ebaluaziora eta herritarrek jardura publikoan parte hartzera zuzendutako kudeaketa-ereduak ezartzeko, eta, ondoren, beste lege-testu batzuetan izan dute garapena; hori dira, alde horretatik, Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea, Sektore publikoko informazioa berrerabiltzeko azaroaren 16ko 37/2007 Legea, Estatuko Administrazio Orokorrean kalitatea hobetzeko esparru orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 951/2001 Errege Dekretua, Politika Publikoen eta Zerbitzuen Kalitatearen Ebaluaziorako Estatu Agentziaren Estatutua onartzen duen abenduaren 1eko 1418/2006 Errege Dekretua, demokraziaren kalitatea hobetzeko prozesuaren zati gisa; eta Estatuko Administrazio Instituzionalaren erregulazioaren arrazionalizazioari eta eguneraketari dagokienez. Zehazki, 6/1997 Legeak estatuko administrazio-egituren dimentsioa egokitzeko beharra ezarri zuen, bikoiztasunak saihesteko eta euren antolaketa soiltzeko zein nabarmen murrizteko.

Aipatzekoa da Lege-proiektu hau 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotako printzipioetan ere oinarritzen dela. Gutun horrek informazio-askatasuna aitortzen du 11. artikuluan; administrazio egokiaren eskubidea, 41. artikuluan; eta erakundearen dokumentuak eskuratzeko eskubidea, 42. artikuluan. Halaber, 2001eko uztailaren 25eko Europako



Gobernantzaren liburu zuriaren gomendioetan oinarritzen da; bertan, gardentasunari eta gizarte zibilarekin elkarrekiteko informazioari buruzko neurriak aldarrikatzen dira, bai eta irekitasuneko, partaidetzako, erantzukizuneko, eraginkortasuneko eta koherentziako bost printzipio berriak ere, demokraziaren oinarri eta gobernu onaren eskubidearen berme gisa, Administrazioek egunero erabiltzen dituzten prozedurei dagokienez, demokraziaren kalitatea eta erakundeen legitimotasuna hobetzeko, «politika, araudi eta emaitza hobeeekin».

Bideragarritasun materialaren estimazioa

Lege berria materialki bideragarria izango da ere bai; izan ere, bere aplikazioak antolakuntza administratiboa eta herritarren eta Administrazioaren arteko harremana hobetzea ekarriko du, horiei buruzko pertzepzio positiboagoarekin.

Administrazioaren funtzionamendu-arauei dagokienez, beharrezkoa da eredu parte-hartzaileagoan oinarritutako administrazio-kultura berria. Horren ezaugarriak honako hauek izango dira:

- pertsona erreferentea izango da, Gobernuaren ekintza partaide eta erantzunkide gisa identifikatuta, gizarte kritikoan, zorrotzean eta parte-hartzailean.
- erakundeak informazioaren gordailu soilak direla eta organo administratiboak gizarte zibilaren berezko inoren interesen kudeatzaileak direla bakarrik hautematen da eta, ondorioz, autokritikara, kontrolera eta herritarren aurrean kontuak ematera ireki behar direla, jarduera publikoaren fiskalizazio hoberako.
- ondorioz, Administrazioa irisgarriagoa, irekiagoa eta hurbilagoa, efikazagoa, efizienteagoa, arduratsuagoa eta, batez ere, gardenagoa izan behar da bere jardueran, zerbitzu publikoen kudeaketa eta kontuak emateko, herritarrek euren eragiten dieten erabaki publikoak hartzeko prozesuan aktiboki parte hartzeko, eta funts publikoen maneian, eta jarduteko elkarriketaren, negoziaketaren eta erabaki garrantzitsuenei buruzko adostasunaren bidezko interakzioko mekanismo iraunkorretan oinarritutako erabilitako irizpideak, euren eskakizunak entzuteko eta erantzuteko sareak sortuta, berezko gisa ebaluatu eta hauteman ahal izateko, baina prozedura modu desegokian oztopatu gabe.
- baina, horren oinarri gisa, beharrezko informaziorako sarbidea bermatu behar zaie herritarrei, dagozkien datu esanguratsuak maneiatu ahal izan ditzaten, eta bere jarduera zehazteko beharra dakar. Existitzen diren beste bide batzuk alde batera utzita, hori informazioaren teknologia berriak emandako tresnak eta

zerbitzu publikoen arretako zein sarbideko komunikazioan erabilia gauzatuko da; hala nola, «Gobierno Abierto-Irekia» plataforma edo «Open Data» datuak irekitzeko sistema. Horretarako, informazio koherentea, egokia, kalitate handikoa eta azkarra eman behar da sarbide errazeko zerbitzuaren bidez, kanal anitzeko baliabideak gaituta Gobernuarekin elkarrekitako, eta une bakoitzean hautatu nahi den kanalaren bidez, baina horren erabilerak herritarren zati bati sarbidea oztopatuko dion «herritarrekin haustura» sortuko ez duenaren bermearekin.

Gardentasunak, partaidetzak eta informazioaren sarbideak honako hauek ere inplikatzen ditu: prozeduraren eta Administrazioaren modernizazioa, karga burokratikoaren murrizketarekin, baliabide elektronikoen erabilerarekin eta izapidetutako prozedurei buruzko informazioaren eta sarbidearen bermekin; nahikoa motibatu behar izatea eta araei zein administrazio-egintzei eta ebazpenei funtzionaltasuna, eraginkortasuna eta sinpletasuna ematea, hizkuntza juridikoa aldatuta, laburra, zehatza eta hartzaileentzako ulergarria izan dadin, euskaraz zein gazteleraz, bere kalitatea hobetzeko.

Azkenik, erabat aldarrikatu behar da beharrezkoa dela ezagutza- eta kudeaketa-ingurunea sortzea, administrazio-antolakuntzaren eta administrazio-unitate ezberdinen ebaluazio-prozesuen sentsibilizazioa eta gaikuntza sustatuta, bai eta ebaluazio-prozesuen eta horien emaitzen ondoko komunikazioa eta difusioa ere.

Ordenamendu juridikoaren gaineko ondorioak

Lege berriak indarreko honako arau hauei eragingo die:

- Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeari.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeari.

Zer eragin izango duten administrazioen aurrekontuetan, gai bakoitzean eta, halakorik badago, dagokion jardueraren sektorean

Lege berriaren aplikazioak ez dakar gastua handitzea; izan ere, publizitate aktiboari, informazioa eskatzen duten herritarren arretarako kudeaketari eta partaidetza-prozesuei buruzko funtsezko edukietatik ondorioztatutako funtzio berriak, hein handi batean oinarritzko legerian jadanik aurreikusitako gardentasun betebeharrari dagokionez, eta langile publikoen berezko funtzio gisa zabalduko dira, euren lanpostuen profilen edukien bilakaera-ikuspegian, eta ez horretaz arduratzen diren zerbitzu berrien sorrera gisa. Labur esanda,

zerbitzu publikoko prozesuen kudeaketan modu ezberdinean lan egitean datza. Beste aldetik, araudi horrek gastuaren arrazionalizazioa eta kontrol handiagoa ekartzea aurreikusten da, horien efikaziaren eta efizientziaren gehikuntza ekarriko duten politika publikoen ebaluazio- eta jarraipen-neurriengatik.

Egin beharreko izapideak eta txostenak

Lege berria onartu ahal izateko, proiektuaren administrazio-izapideari jarraitu behar zaio; hots, abenduaren 22ko 8/2003 Legean, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoan, ezarritako prozedurari.

Lege-aurreproiektuaren testu baten aldez aurreko onarpen-agindua eman ahal izateko behar diren ekintzen ondoren, hori bi hizkuntzetan idatziko da, horri buruzko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren aurreikuspenen arabera. Onartu ondoren, horrela egindako araudi-aurreproiektuak halabeharrezkoak diren txostenak edo beste izapide batzuk jasan beharko ditu, arauzko xedapenak egiteko indarrezko prozeduraren arabera.

Kontuan hartu behar da aurreproiektuak gertuko aurrekaria izango duela euskal herri-administrazioaren alferrikako lege-aurreproiektuaren izapidetzean eta, nolana ere, bideragarria izango dela hau antolakuntzaren eta funtzionamenduaren aspektuak landuko dituen aurreproiektuarekin batera izapidetzea; hori aipatutako aurreproiektuaren bereizketatik dator. Baldintza horrek partaidetzan hain oinarrituta ez dagoen prozesua berriz ez egitea ahalbidetu behar du, orain dela gutxi helburu izan zuen antzeko edukirako.

Horrela, adibidez, oraingoan ez da informazio publikoaren izapidea errepikatuko aurretiko proiektuaren aurreko izapidetzean gauzatutako baldintza zehatzetan, omisio-aukeraren arabera, 8/2003 legearen 8.1 artikulua xedatutakoaren arabera, xedapenen izaerak hori eskatzen ez duenean. Eta hori, antzeko funtzionalitatea betez irekita mantendu daitezkeen beste partaidetza-bide batzuk jokoan jartzea kaltetu gabe, aurreproiektua Irekian erakutsita eta bide horretatik iritsi daitezkeen ondoriozko iruzkinak eta iradokizunak hartuta gertatuko litzatekeen bezala.

Bestalde, 8/2003 Legeak ez du jasotzen epeak murriztuko dituen berariazko urgentzia-izapiderik edo -prozedurarik; nolana ere, batetik, 14. artikuluan, aukera ematen du lege-maila duten arauak eskatzen ez dituzten izapideak egin beharrik ez izateko, arrazoi egokiak emanda, eta, bestetik, 8.4 artikuluan, entzunaldi-izapidearen epeak hamar egun balioduneko gutxieneko epera murriztea ahalbidetzen du.

Kasu horretan, hauxe da urgentzia eragiten duen zergatia: agortze arazoak dagoela autonomia-erkidegoetako organoei eta toki-erakundeei emandako epea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak jasotako betebeharrak egokitu daitezkeen. Aipatutako legearen azken xedapenetako bederatzigarrenak ezartzen du autonomia-erkidegoek gehienez ere bi urteko epea izango dutela, hala dagokionean, oinarrizko legerian aurreikusitakoaren lege-garapena gauzatzeko, legea 2013ko abenduaren 11n indarrean sartzen den unetik aurrera.

Beraz, aurreproiektu honek 2015eko abenduaren 11 baino lehen egon behar luke onartuta eta indarrean.

Bada aurreproiektua urgentziaz izapidetzeko beste arrazoi bat ere, antolakuntzaren eta funtzionamenduaren arloetan aipatutako erregulazioa landuko duen aurreproiektuarekiko interdependentziarekin lotuta; izan ere, hori aurreproiektu honen aldi berean gauzatu behar da.

Elkarrekiko erreferentziaz eta igorpenez beteta dauden bi testuen ageriko interdependentziaren harandian, beharrezkoa da eztabaida publikoa itxuragabetuta ez gelditzea eta talde parlamentarioek Gobernuak proiektatutako eta gauzatu ez zen erregulazioaren inguruan Eusko Legebiltzarrean emandako arrazoiak laster alderatzea eta aurreproiektu berria baliozkotu ahal izatea.

Ez da beharrezkoa genero-inpaktuaren ebaluazio-izapidea errepikatzea; batetik, txostenaren eskusioaren suposizioa egituratzen duen erregulazioak antolakuntza-izaera duelako, eta, bestetik, txosten hori orain dela gutxi egin delako, euskal administrazio publikoaren legearen aurreproiekturako.

Ulertzen da, arrazoi berengatik, ez dela beharrezkoa Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordearen txostenak errepikatzea, ez eta Ekonomia eta Gizarte Batzordearena eta Datuen Babeserako Euskal Agentziarena ere. Kasu horietan, aipatutako aurreproiektuari buruz emandako iritzia nagusitzen da.

Aipatutako arrazoiaren babespean, zabaldu beharreko izapideak honako hauek izango dira:

-Herri Administrazio eta Justizia Sailaren zerbitzu juridikoen nahitaezko txostena, bai eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren Funtzio Publikoko eta Hizkuntza Politikako aurretiko txostenak ere.

-Entzunaldia emango zaie enpresa- eta sindikatu-erakundeei, bai eta EAEko erakunde-multzoari ere, EUDELen eta hiru foru-aldundien iritzien eskaeraren bidez. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren sail guztietara bidaliko da, izan litezkeen alegazioetarako.

-Aldez aurretik inplementatuko diren karga administratiboen eta herritarrentzako izango dituzten kosteen analisia jasoko duen memoria ekonomikoa eginda, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren halabeharrezko txostena eskuratuko da. Kasu honetan, aipatutako urgentzia-arrazoiak direla eta, izapide hori aurretiazko izapideekin batera gauzatu beharko da.

-Halaber, espedienteari prozedura osoaren memoria laburra erantsiko zaio, adierazitako 8/2003 Legeak adierazitako moduan.

-Azkenik, Gobernu Kontseilura bidali aurretik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jasoko da, kontsulta premiazkoa baita, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 26.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Europar Batasunaren aurreko izapideak

Lege-proiektu honi dagokionez, ez da izapiderik egin beharko Europar Batasunaren aurrean, kontuan hartuz aplikazio-eremua eta araudiaren helburua eta xedea.

Idazketa elebidunerako metodoa

Euskararen 10/1982 Legearen 8.1 artikulua betetze aldera, HAEEko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak itzuliko du erregelamenduzko araudiaren testuaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioa, lege-proiektu bat denez.

Era berean, adierazitako moduan, Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiari jarraituko zaio; bertan, onartu zen lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorren idazketa elebidunerako neurriak onartzeko erabakia; horrela, dagozkien negoziaketa-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak testu elebidun osoarekin jarraituko dira. Halaber, testu elebidun osoa bidaliko da, instrukzioen hurrengo faseetan halabeharrezko txostenak eta irizpenak eskatzerakoan.

Bigarrena.-

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak izapidetuko du aipatutako prozedura legegilea, horretarako

eskumena ematen baitio Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuko 18. artikuluko b) epigrafeak, «Antolaketaren eta prozeduraren arloko xedapen orokorren proiektuak, ekimenak eta arau-gidalerroak prestatu eta proposatzea, horiek sinplifikatzea eta horien kalitatea eta gizarterako eraginkortasuna hobetzea bilatuz». Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitekoak eta jardun-arloak agertzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituzten Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuko f) eta l) letretan, eta Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren eskumenak, berriz, apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuko 15. artikuluko bigarren paragrafoko h) eta m) arteko epigrafeetan.

Hirugarrena.-

Legesarea izeneko lankidetzeta-gunean Agindu honen berri ematea, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu zituen Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainean.

**Herri Administrazioko eta Justiziako sailburua
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.**